



© Arkeologia Museoa

TRASLOSHEROS -EKO TAUROBOLIO ALDAREA

K.o. III-V mende
bitartean

Aurkikuntza

2018. Urte bukaeran, Artzentaletako Traslosheros auzoan saneamendu lanak burutzen ari ziren bitartean harreharrikoko bloke handi bat berreskuratu zuten, eta zezen baten irudia zuen aurrealdean.


Udalherriko basozainak aurkitu zuen, eta BFA-ko Ondare zerbitzuari eman zion honen berri. Zerbitzuak, era berean, Arkeologia Museolari jakinarazi zion, pieza entregatu, aztertu eta gordetzeko.

Pieza

Hareharrikoko bloke prismatiko baten aurrean gaude, 69 zm garai, 32 zm zabal eta 36 zm sakon dituen.

Aurrealdean, zezen baten aurpegia irudikatzen duen baxu-erliebe bat dauka, kordoi batek inguratzen duen lauki formako beheragune baten barnean. Goiko aldean lerro lodiz errematatuta dago, zerra-hortz gisa. Lerro horien erpinak koadroa inguratzen duen kordoiaren gainean daude, ziur aski alboetako hiru alde zeharkatuko lituzke baina ez dira guztietan kontserbatu.

Koadroaren oinarriak pikotx marken arrastoak ditu, gainazala homogeinizatzeko ahaleginean eta zezenaren erliebea nabarmentzeko.



Piezaren kokapena Traslosheros auzoan
© Visor GeoEuskadi G.V.



Elexazarreko Taurobolioa (Amurrio)
© Juanjo Hidalgo



“La Villa de las Musas de Arellano”-ko
Tauroboliko izaerako aldareak



Sos del rey Católico Taurobolio aldarea
© José Garrido Lapeña (CER.ES)

Zezenaren buruak lerro gurutzatu batzuk ditu animaliairen aurpegiaren gainean, maskara edo oihal batez estaliko balu bezela. Adarrak oso garatuak eta ia angelu zuzenean ditu, begiak berriz, bi zulo sakonez nabarmenduak. Eskubiko belarria markatuagoa dago, buruaren alde horretako adarra bezala. Ezkerreko aldea berriz, leunduagoa nabari da.

Animaliairen muturra ez dago zizelkatuta.

Piezaren atzeko aldean hiru urradura daude, aurkitu zuen hondeamakinaren hortzek egindakoak. Aurrekaldean, era berean sortutako haustura bat. Aurpegi batean, beroarekiko esposizio-markak ditu eta baita higadura arrasto desberdinak ere nabarmentzen zaizkio.

Piezan apaindura gehiagorik ez da nabari, baina gainazalean zehar arbaztatze-lanaren hargintza arrastoak ageri dira.

Interpretazioa

Autore batzuen arabera, aldare tauroboliko bat izango litzateke, etxeko gurtzarako erabiltzen den aldare anepigrafikoa, non modu erritualean zezen bat sakifikatzen zen odol bataio gisa. Jainkoei eguneroko babesa eskatzeko leku bat. Erromak ekialdetik ekarri zuen Cibeles jainkosaren gurtzarekin lotzen da, jainkoen ama gorena izateagatik ezaguna.

Beste ikerketa lerro batzuen arabera, pieza hauek zezen baten estatua jartzeko erabiliko ziren, idulki moduan. Estatua horiek gurtze funtzioa izango zuten eta identifikatu ez den jainkoren bati eskainitako zin opariekin lotzen dira (izaera indigena zuen zezen gurtza, Jupiter, Cibeles...).

Oro har, k.o. III mendetik V. mendera bitarteko kronologia eman zaie.

Aldare honen berreskuratzeak inguruan erromatar garaiko aztarnategi bat egon zitekeela pentsarazten digu, non ez den beste arrastorik agertu.

Ezaugarri horiek dituen alerik hurbilena Amurrioko Elexazar aztarnategian kokatzen da. Nafarroa eta Aragoiko mendebaldean ere badaude pieza antzerakoak, baina Traslosherosen hau bezala, testuinguru arkeologikorik gabe aurkitu dira.

Bibliografia:

MARCOS SIMÓN, F.(1997) ¿Taurobolios vascónicos? La vitalidad pagana en la Tarraconense durante la segunda mitad del siglo IV. Gerión, nº15, pp.297-320.

HIDALGO, J.(2019) Elexazar, un hito en la romanización del Alto Nervión. Aztarna. Revista de etnografía y difusión cultural del Alto Nervión. nº52, pp.44-50.